



MINISTERIO
DEL INTERIOR



BESTE HERRIALDE BATERA IBILGAILUA ERAMATEAGATIK BEHIN BETIKO BAJAK

GARRANTZITSUA: Edozein buruzagitzatan izapidea egin baino lehen, aurretiko zita eskatu behar duzu.

- **Eskaera:** inprimaki ofizialean. ([www.dgt.es orrialdean inprimaki eskuragarria](http://www.dgt.es/orrialdean/inprimaki/eskuragarria))
- **Tasa** 8,30€ko zenbatekoagatik, izan ezik Espainian bere matrikulazio datatik 15 urte baino gorakoak. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik).
- **Interesdunaren identifikazioa:**
 - Pertsona fisikoak: dokumentu ofiziala, tituludunaren nortasuna eta helbidea egiaztatzen dituen (NAN, gida-baimena espainiarra, egoitza-txartela, pasaporte gehi Atzeritarren Identifikazio Zenbakia).
 - Pertsona juridikoak: elkartearen zerga-identifikazioaren txartela eta sinatzen duenaren ordezkapena eta nortasuna egiaztatu ([Eredua eskuragarria www.dgt.es orrialdean](#))
 - Adingutxikoak edo ezgaituak: aita, ama edo tutorearen datuak eta sinadura bere NAN-a eta iharduten duten kontzeptua egiaztatzen duen dokumentua.
- **Ibilgailuaren dokumentazioa:** IIT Txartela eta zirkulazio-baimena.
- **Prezinto** bat balego baja izapidatzeko eragozpen bat litzateke, aurretik indargabetu behar da.
- Ibilgailuaren baja eskatu baino lehenago, Ondasun Higigarrien Erregistroan inskribaturik egongo litzaken edozein dispozizio-mugapena **indargabetu beharko** da, Finantzieraren adostasun zehatza dagoen kasuan izan ezik.
- **Nekazal ibilgailuek** Autonomia Erkidegoaren Nekazal Makineriaren Erregistro Ofizialean baja ematearen dokumentu egiaztatzailea **erantsi beharko dute**, DGTko Ibilgailuen Erregistroko ziurtagiri telematikoa dagoenean izan ezik.
- **Batasun Europarrekoa ez den herrialde batera aldatzeagatik baja kasuetan**, interesatuaren aitoren arduratsua zeinean agertuko den ibilgailua ez dela hondakin bat. ([Eredua eskuragarria www.dgt.es orrialdean](#)).

OHARRA: izapidea titularrak aurkezten ez badu, honek sinatutako baimena eta bere NANA beharrezkoa izango dira, non doaneko izaera adieraziko den (www.dgt.es-n eredu eskuragarria).

Goian eskatutako daturen batek frogagiri fede-emailea ez badu, dokumentazio gehigarria eska daiteke.